

PROIEKTU ARTISTIKOAK
PROYECTOS ARTÍSTICOS

13

DETECTOR DE MENTIRAS SOBRE LAS PERSONAS MIGRANTES

Juan Ibarrodo y Marta Gil

Inauguración: 13 diciembre, 19:00
Fechas Proyecto: del 13 al 15 de diciembre 2013

CONTACTO PRENSA
+34 945 161 830
e-mail: info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org

Montehermoso presenta los proyectos seleccionados en la convocatoria Proyectos Artísticos 2013. El objetivo de esta convocatoria es hacer visible el trabajo de las y los artistas locales. Los proyectos seleccionados, cinco trabajos específicos desarrollados a lo largo de los últimos meses para su presentación en las salas del centro, ofrecen una visión diversificada de las prácticas artísticas en Vitoria-Gasteiz.

DETECTOR DE MENTIRAS SOBRE LAS PERSONAS MIGRANTES.

Juan Ibarondo y Marta Gil.

Del 13 al 15 de diciembre de 2013.



'Detector de mentiras sobre las personas migrantes' es parte de un proyecto mas amplio iniciado en el 2012.

Los detectores de mentiras son juegos de mesa que tratan de abordar de una forma entretenida y didáctica temas relevantes de la sociedad de hoy. No es necesario explicar que el tema de las personas migrantes, en todas sus variantes, es un aspecto de gran importancia en la sociedad actual. Por un lado nuestras sociedades han sido receptoras de personas procedentes de otras culturas, que han enriquecido de muchas formas nuestra sociedad, pero también han provocado contradicciones y desajustes en la convivencia. Es por ello que consideramos importante incluir este tema en nuestra serie 'Detectores de mentiras'.

La presentación consta de una primera parte donde se explica el sentido del proyecto tanto desde el punto de vista de los contenidos, como de la teoría de juegos cooperativos y muy especialmente desde una perspectiva artística/plástica. La segunda parte es una actividad participativa que consiste en invitar a jugar a lo largo de toda una jornada a las personas que se vayan acercando a Montehermoso.

Taller 14 de diciembre de 2013, 11h a 13h.

El escritor Juan Ibarrodo y la artista plástica Marta Gil, creadores del proyecto artístico "DETECTORES DE MENTIRAS", acompañarán a los participantes en una migración artística y literaria. El recorrido está concebido como un laberinto. Las personas que participen en él, se verán enfrentadas a una serie de conflictos, que superarán de forma colectiva para llegar al final del viaje, y a la salida del laberinto.

Un taller que coloca a quienes participan en la piel del otro. Un taller, por tanto, que trabaja la empatía. Cuatro historias, cuatro imágenes, y un espejo desde donde mirarnos. Cuatro historias y cuatro imágenes que se alejan del tópico y el prejuicio. Una migración personal a través de la piel del otro. Un taller que utiliza las artes plásticas y la expresión literaria, para la consecución de un viaje personal y colectivo. Un viaje basado en la contemplación personal y la conversación en grupo. Una visión diferente de las migraciones, pues la propia vida es una migración en el tiempo, a través del espacio.

¡¡Todos y todas somos personas migrantes!!

Entrada libre hasta completar aforo

INSTRUCCIONES PARA EL PARTICIPANTE

Esta exposición está concebida como un viaje, una migración a través de la piel del otro.

Si sigues la cinta colocada en el suelo, llegarás de forma consecutiva a cuatro espacios diferenciados.

En cada uno de los espacios te invitamos a leer una historia y a contemplar una imagen. Son historias abiertas. Nos gustaría que de forma personal, o conversando con quien está a tu lado, te pusieras en la piel de quien protagoniza la historia y decidieras qué hacer.

Las imágenes se explican por sí mismas, tal vez una palabra pueda ayudar a entenderlas mejor: Desentrañados.

Al final te espera una sorpresa. Búscales significado y anótalo en el libro junto a la puerta de salida.

Un fuerte abrazo
Marta Gil & Juan Ibarrodo.

PROIEKTU ARTISTIKOAK 13
PROYECTOS ARTÍSTICOS

DETECTOR DE MENTIRAS SOBRE LAS PERSONAS MIGRANTES

Juan Ibarrodo eta Marta Gil

**Inaugurazioa: abenduaren 13an, 19:00etan
2013ko abenduaren 13tik 15era**

**PRENTSA KONTAKTUA
+34 945 161 830**

e-mail: info.montehermoso@vitoria-gasteiz.org

2013ko proiektu artistikoen deialdian hautatutako proiektuak aurkezten ditu Montehermoso Kulturuneak. Deialdiak bertako artisten lanak erakustea du xede. Aukeratutako proiektuak Montehermosoko geletan erakusteko azken hilabeteetan prestatutako bost proiektu dira, eta Gasteizen egiten diren praktika artistikoen ikuspegi anitza eskaintzen digute.

DETECTOR DE MENTIRAS SOBRE LAS PERSONAS MIGRANTES. Juan Ibarrodo eta Marta Gil

2013ko abenduaren 13tik 15era



'Migratzaileei buruzko gezur-detektagailuak' 2012an hasitako proiektu zabalago baten zatia da.

Gezur-detektagailuak mahai-jokoak dira, gaurko gizartean pil-pilean dauden gaiak era entretenigarri eta didaktikoan lantzeko xedea dutenak. Ez dago esan beharrik migratzaileekin lotutako alderdi guztiek garrantzi handia dutela gaurko gizartean. Izan ere, guregana beste kultura batzuetako pertsonak etorri dira eta horrek, batetik, modu askotan aberastu du gure gizartea baina, bestetik, kontraesanak eta desorekak sortu ditu bizikidetzan. Horregatik jo dugu garrantzitsutzat gaia 'Gezur-detektagailu'-en sortan lantzea.

Aurkezpenak bi zati ditu: lehenengoan, proiektua zertan den azalduko da, bai edukien ikuspuntutik, bai lankidetzan jolasen teorian ikuspuntutik eta, bereziki, ikuspuntu artistiko/plastikotik. Bigarren zatia parte hartzeko jarduera bat da, eta Montehermosora egun batean zehar hurbiltzen diren pertsonak jolastera gonbidatzean datza.

Lantegia

2013ko abenduaren 14an, 11:00etatik 13:00etara

Juan Ibarrodo idazleak eta Marta Gil artista plastikoak sortu dute "GEZUR DETEKTAGAILUAK" izeneko proiektu artistikoa, eta haiek lagunduko diete parte-hartzaileei migrazio artistiko eta literario batean. Ibilbideak labirintoaren itxura du. Parte-hartzaileek zenbait gatazkari egin beharko diote aurre, eta taldean gainditu beharko dituzte bidaiaren bukaerara iristeko, hau da, labirintoaren irteerara.

Lantegiak bestearen larruan jartzen ditu parte-hartzaileak. Lantegiak, beraz, enpatia lantzen du. Lau istorio, lau irudi, eta geure buruari begiratzeko ispilu bat. Topikoetatik eta aurreiritzietatik aldentzen diren lau istorio eta lau irudi. Migrazio pertsonala, bestearen larruan barrena. Lantegiak arte plastikoak eta literatur adierazpidea baliatzen ditu bidaia pertsonal eta kolektiboa egiteko. Norberaren kontenplazioan eta taldeko solasaldietan oinarritutako bidaia. Migrazioen ikuspegi ezberdina, bizitza bera denboran eta espazioan barrena egiten den migrazioa baita.

Guztiok gara migratzaileak!

Sarrera doan lekuak bete arte

PARTE-HARTZAILEENTZAKO JARRAIBIDEAK

Erakusketa honek bidaia bat irudikatu nahi du, bestearen larruan barrena egindako migrazio bat.

Lurrean ipinitako zerrendari jarraituz, lau leku bereiz aurkituko dituzu bata bestearen atzetik.

Horietako bakoitzean istorio bat irakurtzera eta irudi bat behatzera gonbidatzen zaitugu.

Istorio irekiak dira. Bakarka, edo ondoan duzun pertsonarekin solasean, istorioaren protagonistaren larruan jartzea nahiko genuke, eta haren lekuan bazina zer egingo zenukeen erabakitzea.

Irudiek ez dute azalpenik behar, baina hitz batek agian hobeto ulertzen lagun dezake: deserrotuak.

Amaieran ustekabe bat duzu zain. Bila iezaiozu esanahia eta idatz ezazu atearen ondoko liburuan.

Besarkada handi bat,
Marta Gil & Juan Ibarondo

